

ERABAKIA, 2015eko MARTXOAREN 2koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, FARMAZIA FAKULTATERAKO III TALDEKO, LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA LANPOSTUA, ALDI BATEZ ETA EGINKIZUNEN ESLEITZEAN BETETZEKO DEIALDIA, 2015eko URTARRILAREN 8koa, EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2015eko urtarrilaren 8ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2015eko otsailaren 9ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- 2013ko uztailaren 4ko Akordioa, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duena.
- UPV/EHUko AZPko lan kontratudun langileen III hitzarmen kolektiboa.
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2013ko urriaren 4ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostuak Eginkizunen Ezleitzean erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen 2013ko uztailaren 4ko Akordioa (AZPko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa), UPV/EHUko Gobernu Kontzeiluaren 2013ko uztailaren 18ko bileran berrestatua,

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak hurrenkera ordenatuan baloratu ondoren goren geratzen den pertsona. Eraberan, kontutan hartu behar da Akordioaren 4,2 puntua: "aldi baterako lan kontratudun langileak eginkizunen esleipenerako lan kontratudun finkorik egon ezean baino ez dituzte aukeratuko".

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Erabaki honetako eranskinetan jasota dauden baldintzetan eta aipatzen diren lanpostuak, hautatutako lan-kontratudun langileak lan kontratuaren bitartez, aldi baterako esleitzea.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko martxoaren 4ko ondorio-dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2013ko uztailaren 4ko akordioaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUREN webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Farmazia Fakultateko administratzaileari, Animaliategiko Zuzendariari eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPREN atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honen kontra lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean hilabeteko epean. Hilabete igaro eta ebazpena jakinarazi ez badiote langileak ezetsizat jo dezake erreklamazioa. Erreklamazioari ezezkoa emanaz gero, edo ebazpenik jakinarazi gabe hilabete igaroz gero, epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurretiazko erreklamazioa ukatu dela jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunez ukatutzat jotzen den egunetik kontatuta. Hori guztia, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 125. artikuluan eta urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2015eko martxoaren 2an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteche



I. ERANSKINA

2015eko MARTXOAREN 2ko ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA FARMAZIA FAKULTATERAKO "LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA III TALDEKOA" LANPOSTUA ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA EBAZTEN DUENA (2015eko URTARRILAREN 8ko ERABAKIAREN BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)

Esleipenduna: Laura Ansotegui Alday

Izena: Laborategiko Teknikari Espezialista

Erref.: L 99

Zenbatgarrena: 7

Taldea: III

Kategoria profesionala: Osasuneko/Animaliategiko teknikari espezialista

Espezialitatea: Osasuna/Animaliategia

Maila: 21

Hizkuntza eskakizuna: 2

Langunea: .Farmazia Fakultatea

Campusa: Araba

Ondorioetarako data: 2015eko martxoaren 4a